



## HIPOTEKA-MAILEGUAREKIN LOTURIKO KOMISIOAK/GASTUAK<sup>1</sup>

Kontuan hartu beharko duzu hipoteka-mailegu baten kontratazioa jarraian zehaztutako zenbait zerbitzu eta komisioen sorrerarekin lotuta dagoela:

### Banku-komisioak:

#### Irekitze-komisioa

Banku-erakundeak emandako kredituaren printzipalaren gainean kalkulatzen da. Tarifa banan-banan erabakiko da eragiketa bakoitzean.

### Banku-erakundetik kanpoko beste gastu batzuk:

#### Tasazioa.

Balorazio hau derrigorrezkoa da legez, eta Espainiako Bankuan izena emanda eta erregistratuta dagoen tasazio-erakunde batek egin behar du. Higiezinaren balio erreala zehazteko balio du. Zerbitzuaren kostua higiezinaren azken balioaren arabera da. Tasazioak 6 hileko indarra dauka, jaulkitzen den egunetik.

Tasazioa egiten duten teknikari edo enpresek fakturatutako balorazioaren kostua jasanaraziko da. Esate baterako, 200.000 eurotan tasatutako etxebizitza baten kasuan, kostua 355,74 eurokoa izango da 2022ko ekitaldian.

#### Erregistroko egiaztapena/ziurtagiria.

Ohar bat eskatuko zaio Jabetzaren Erregistroari, hipotekatu nahi den higiezinaren datu guztiak egiaztatzeko (titulartasuna, zorren egoera...). Kostua 30 euro ingurukoa izaten da.

### Zenbait egoera zehaztuta honako komisio hauek ere jasoko dira:

#### Aldez aurretik amortizatzeagatik eta ezeztatzeagatik komisioa

Aktiboko eragiketen amortizazioan edo ezeztatze oso edo partzialetan aplikatuko da, interes-tasaren modalitatearen arabera:

a) Interes-tasa aldakorra (kontratuan zehaztutako modalitatearen arabera). Aurretik, borondatezko amortizazioaren ondorioz Kutxabankek izango lukeen galera kalkulatuko da. Komisio bat jasoko da, bi hauen arteko zenbateko txikiari dagokiona: aipatutako galera eta aurrez amortizatu den zenbatekoaren gainean kontratuan zehaztutako ehunekoa aplikatzearen ondorioz lortzen dena.

Kontratuan aukeratuko da	Urte kopurua formalizaziotik	Komisioaren %
A AUKERA	5 urtera arte	% 0,15
B AUKERA	3 urtera arte	% 0,25

b) Interes Finkoa. Aurretik, borondatezko amortizazioaren ondorioz Kutxabankek izango lukeen galera kalkulatuko da. Komisio bat jasoko da, bi hauen arteko zenbateko txikiari dagokiona: aipatutako galera eta aurrez amortizatu den zenbatekoaren gainean kontratuan zehaztutako ehunekoa aplikatzearen ondorioz lortzen dena.

Urte kopurua (Formalizaziotik edo interes finkoaren aplikaziotik)	Komisioaren %
10 urtera arte	% 2
> 10 urte	% 1,5

Maileguaren hipoteka-bermearen barruan dagoen higiezinaren aseguratze erabiltzen den eta higiezinaren tasazioaren arabera haren balioa estaltzen duen derrigorrezko Etxe Asegurua hipotekaren hartzekoduna den Kutxabank SAREN alde subrogatuko da.

**OHARRA:** Pertsonalizatutako Informazioan (FEIN) zure maileguaren gastu eta komisioen xehetasun guztiak daude. Kontuan hartu behar da zenbateko horietako batzuk gutxi gorabeherakoak direla, ezinezkoa baita kopuru zehatza jakitea.

<sup>1</sup> Informazio gehiago eskuratzeko, [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunera jo dezakezu. Hemen jaso diren eta banku-erakundetik kanpokoak diren gastuen zenbatekoak dagokienez, informazio eguneratua eskatzea gomendatzen dizugu, erakunde honekin zerikusirik ez duen prezioen aldaketaren bat egon daitekeelako.